Usurbilgo Udala

0-3 URTE BITARTEKO UDAL HAUR ESKOLAKO ZERBITZU EMAKIDA KONTRATATZEA
KLAUSULA TEKNIKOEN ORRIA

1.- Helburua

Plegu honen helburua hauxe da: Usurbilgo udalerrian, haur eskolako udal zerbitzuaren (hezkuntza zerbitzua, 0-3 urte bitartekoa, haur hezkuntzako 1.zikloa) ustiapena esleitzeko, prozedura irekia arautu behar duten baldintza teknikoak xedatzea; jarduera hori, bere gain hartzen du Udalak propio bezala. Gizarte eta hezkuntza zerbitzua da, emakida bidez, eta eskolaurreko hezkuntza emateko. Horretarako, pedagogia teknikarik egokienak baliatuko dira eta haurraren kultura eremuan kokatuko da.

Otorduak eta jangela zerbitzua ere eman beharko da.

2.- Jardun eremua

Komunitateko zerbitzu moduan, Haur Eskola zabalik egongo da Usurbilgo Udalerriko haur guztientzat, eta komunitate osoaren beharrak bete beharko ditu; plaza kopuruak baino ez du mugatuko.

Udalerriko eskariari erantzun eta gero, eskualdeko udalerrietako haurrei eman ahal izango die zerbitzua Zentroak.

3.- Ordutegiak

Ordutegia: goizeko 7:30ean hasi eta arratsaldeko 16:30 arte.

Orientazio moduan hartu da ordutegi hori, eta Udalak azken ordutegian aldaketak egin ditzake, haserako nahiz bukaerako orduan.

4.- Haurren ratioak, ikasgelako

Puntu honi dagokionean, Autonomi Erkidegoko abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak xedatutakoa bete beharko du zentroak:

- Urtebete baino txikiagoak diren haurrentzako unitateak: 1/8.
- Urte batetik bi urtera bitarteko haurrentzako unitateak: 1/13.
- Bi urtetik hiru urtera bitarteko haurrentzako unitateak: 1/18.

5.- Langileen titulazioa

a) Lanbide kualifikazioa: Behar adinako gaitasuneko profesionalek emango dute eskola, dagokion espezialitatearekin, eta aldi berean, hezkuntza laguntza egokia emateko behar den

moduko kualifikazioa duten beste profesional batzuk izango ditu enpresa kontzesionarioak, abian dauden unitate-kopuruaren arabera. Haur Eskolan lan egiten duten profesionalek Autonomi-Erkidegoko azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuko 10. artikuluan xedaturiko gutxieneko titulazioa izan behar dute.

Maisu-maiestrek emango dute eskola, dagokion espezialitatearekin, eta aldi berean, hezkuntza laguntza egokia emateko behar den moduko kualifikazioa duten beste profesional batzuk izango ditu enpresa kontzesionarioak: zenbat unitate funtzionamenduan, horrenbeste langile gaitu, gutxienez.

Zero eta hiru urte bitarteko umeentzako hezkuntza-arreta eta laguntza egokia emateko profesional gaituak eduki behar ditu enpresa kontzesionarioak; profesional hauek titulazio hauetariko baten bat izan beharko dute:

- Maisu-maistraren titulua, Haur Hezkuntzako espezialitatea edo baliokidea, 94-9-30eko 1954/1994 Errege Dekretuaren (94-11-17 BOE) eta berariazko araudiaren arabera.
- Haur Hezkuntzako goi-teknikariaren titulua edo baliokidea, 98-4-30eko 777/1998 Errege Dekretuaren (98-5-8 BOE) eta berariazko araudiaren arabera.
- Hala ere, Hezkuntza Administrazioak deitu edo homologaturiko Haur Hezkuntzako espezializazio-edo gaikuntza-ikastaroak gainditua dituztenek edo gainditzen dituztenek, zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako hezkuntza eta arreta eskaini ahal izango dute. Hori guztia, 1996ko urtarrilaren 11ko Aginduaren arabera (96.1.23 BOE), horren bidez homologatu baitira Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Hezkuntza Berezia etaDerrigorrezkoBigarren Hezkuntzako lehen zikloko irakasleentzako espezializazio-ikastaroak, eta Haur Hezkuntzako lehen zikloko profesionalentzako gaikuntza-ikastaroak.

b) Hizkuntz eskakizunak: Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunari dagokionez. Beraz, Hezkuntza alorreko zerbitzua emango duten langileek Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila (hezkuntzako 2. hizkuntza eskakizuna) izan beharko dute.

Artikulu honek aipatzen dituen langile kualifikatuek atendituko dituzten uneoro haurrak, eta bere kopuruari dagokionez, Autonomi Erkidegoko azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuaren 12. artikulua bete beharko da.

Hezkuntza beharrizan bereziak dituzten haurrak integratzeko behar diren giza baliabideak eta laguntza baliabideak emango ditu hezkuntza administrazio aginpidedunak.

Otorduetako, jantokietako, eta antzeko zerbitzuak eskaini beharko ditu eta horretarako behar adina langile izango dira, eta eskumena duten agintariek ezartzen dituzten arauak bete beharko dituzte zerbitzua ematen ari direnean.

6.- Haur eskola zerbitzuaren prezioa

Haur eskolaren hezkuntza zerbitzuaren prezioak desberdinak dira Usurbilen erroldatutako edo Usurbildik kanpo erroldatutako haurrentzat:

Usurbilgo Udala

0-3 URTE BITARTEKO UDAL HAUR ESKOLAKO ZERBITZU EMAKIDA KONTRATATZEA
KLAUSULA TEKNIKOEN ORRIA

	Usurbilen erroldatuak	Usurbilen erroldatu gabeak
Egun osoko zerbitzua	280,93	249,84
Egun osoko zerbitzua eta merienda	303,75	379,70
Egun erdiko zerbitzua	113,77	142,21
Egun erdiko zerbitzua gehi janaria	216,15	270,20
Arratsaldeko egun erdia eta merienda	93,28	152,44
Txikiak (0-6 hilabete) egun erdia eta biberoia	117,19	146,47
Txikiak (0-6 hilabete) egun osoa eta biberoia	199,15	250,28
Txikiak (0-6 hilabete) egun osoa, biberoia eta merienda	224,11	280,14

Familia bereko bi edo senide gehiagok zerbitzua jasotzen badute:

-2 anai arreba badira, 1,5 balira bezala ordaindu beharko dute.
-3 anaiarreba badira, 2 balira bezala ordaindu beharko dute.
-4 edo gehiago badira, erdia ordaindu beharko dute

Zerbitzua jasotzeko erreserban dauden haurren gurasoek ez dute janari gasturik ordaindu beharrik izango.

Ikasturtea irailaren 1etik uztailaren 30era artekoa izango da, eta abuztua ez da irakasteko edo zerbitzuko hilabetea.

Zerbitzu honen erabiltzaileak 11 hilabete ordaindu behar ditu, eta araudian adierazten den legez ordainduko du.

Tasak une honetan indarrean dauden tasak dira. Lizitatzaileek lehiaketan aldaketak proposatzeko aukera izango dute, betiere, udalak onartuz gero eta legez ezarritako baldintzak betez gero.

7.- Hezkuntza eraikinak

Usurbilgo Haur Eskolaren eraikina hurrengo helbidean kokatuta dago: Kalezar, 15.

132/2010ko Errege Dekretuak, azaroaren 16ko 215/2004 dekretuak eta Eraikuntzaren Kodigo Teknikoa (314/2006 Errege Dekretuak, martxoaren 17koa, ezartzen dituzten gutxieneko baldintzak jaso behar dituzte instalazioek eta eraikinek.

- Haur eskola erabilera esklusiboko lokaletan behar du; ezinbestekoa izanik konpoaldetik sarbide independientea izatea

- Dekretuak adierazten duen bezala, eskola kopurutzat joko da zentro batek aldi berean har ditzakeen haurren kopurua, irakasteko eskatzen diren kalitate baldintzak bermatu daitezen.

Usurbilgo Udala

0-3 URTE BITARTEKO UDAL HAUR ESKOLAKO ZERBITZU EMAKIDA KONTRATATZEA
KLAUSULA TEKNIKOEN ORRIA

Xedapen espezifikoak:

Instalakuntza eta baldintza materialen inguruan, Autonomi Erkidegoko azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuak bere 5. artikulutik 9. artikulura arte xedatutakoa bete beharko du zentroak.

8.- Kontratua berraztertu eta aldatzea

Adjudikatu den zerbitzuaren ezaugarriak aldatu ahal izango ditu Udalak, interes publikoko arrazoiak daudenean, eta baldintza ekonomiko-administratiboen pleguan jasoko dira berraztertu eta aldatu beharrekoak.

Zerbitzua abian jartzeko aldian eta gero ere bai, aldaketak sor daitezke zerbitzuari partzialki eragiten diotenak eta soilik gastu aldakorrei dagokionean.

Kontratua aldatzeko proposamenak egin ahal izango ditu adjudikatarioak, zerbitzua hobetzeko edo handitzeko, edo zerbitzuaren kostua murrizteko, Udalaren aldetik proposamenak aztertu eta hala badagokio, onartzekotan.

9.- Zerbitzuaren jarraipena

Udalak ahalmena izango du haur-hezkuntzaren zerbitzuarekin zuzenean lotutako jarduerak ikuskatzeko, esleipendunaren betebeharrak egiaztatze aldera.

Esleipenaren baldintza teknikoak betetzen diren edo ez ikuskatu ahal izango du Udalak, esleipenari atxikitako eraikinen egoerari dagokionez, nahiz zerbitzuaren gorabeherei dagokienez (ordutegiak, tarifak, e.a.).

Ikasturte hasieran honako agiri hauek aurkeztuko dira:

- Aurrekontua (gastu eta sarreren aurreikuspena)
- Ikasturteko langileen zerrenda: lanpostu, kontratu mota eta jardunaldiarekin
- Ikasle kopuruak taldekatuta eta mailaka irakasleen izendapenarekin eta dedikazioarekin
- Egutegi eta ordutegia

Ikasturte amaieran honako agiri hauek aurkeztuko dira:

- Ikasturteko balantze ekonomikoa (sarrera eta gastuen zehaztapenarekin)
- Ikasturteko memoria